



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

45 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

—Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hondakindegia eta zaborteak desagertarazi eta antolatzeko plan bat egin dezan, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har dezan, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabal dezan, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduen buruzko ikerlan bat egin dezan, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).

—“Kooperatiba araubideko makineria eta produkzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).

- “Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- “Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- “Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- “Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- “Dirulaguntza, urreztaur berrientzako edo daudenak hobetzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- “Lurzati-antolamendua. Jabetzaren aldaketa lanak. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- “FEOGA-O nekazaritza ustiapenen eraginkortasun hobetzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- “Dirulaguntza, kooperatibek nekazaritza produktuak gordetzeko biltegiak eraiki, handitu edo hobetu ditzaten” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- “Dirulaguntza, araubide kooperatiboan ez dauden nekazaritza alorreko industrializatzeko eta merkaturatzeetan inbertitzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- “Kalitatea duen haragia. Nafarroako Aratxea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- “Federazioendako dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- “Toki entitateen kirol jarduerendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- “Dirulaguntzak eta kirol elkarteekiko hitzarmenak kirol instalazio arloan inbertitzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- “Toki entitateendako dirulaguntzak kirol instalazio arloan inbertitzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- “Aukera Berdintasun Plana” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- “Oinarritzako gizarte zerbitzuak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- “Proiektuak eta lan-eremuak birgizarteratzen ari diren pertsonentzat” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- “Beste elkarte batzuekiko dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- “Plan Gerontologikoa garatzeko jarduketak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- “Dirulaguntzak, haur eta gazteentzako besteen zentroetan obrak egiteko eta ekipamendua erosteko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- “Inbertsioak Plan Gerontologikoan. Enpresendako transferentziak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- “Inbertsioak Plan Gerontologikoan. Toki Entitateendako transferentziak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).

- “Herri sahararrarendako laguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egin (27. or.).
- “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egin (28. or.).
- “Lursailak desjabetzea Iruñeko garraioaren hirirako” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egin (28. or.).
- “Bidaiarien garraio zerbitzuei eusteko laguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egin (29. or.).
- Hainbat espezialitatetako kanpoko kontsultak arratsaldez irekitzeari buruzko galdera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (29. or.).
- PEPRI delakoaren barruan 1992. urtean Nafarroako Gobernuak bideratutako espedienteei buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeakegina (30. or.).
- “Kanpoan dauden nafar etxeendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (31. or.).
- “Nafarroako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialerako transferentzia” kontusaila gutxitzeari buruz eta “Rating-a lortzeko lanak eta aholkularitza” kontusaila haunditzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (32. or.).

---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko**

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 162. artikulua ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agindu da: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa abiarazteko.**

Iruñean, 1998ko                      ren                      (e)an

BILDURIK

.....jaun/andreak (Kontseiluak zehaztuko du), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak,

Margarita Mariscal de Gante y Miñón andreak, Ministroen Kontseiluak 1995eko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez eskuordetuta (abuztuaren 4ko E.A.O.), eta,

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Gobernuaren Lehendakari jaunak,

ADIERAZI DUTE

I.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia dela botere judizialaren aginte organo nagusia, 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 122.2 artikulua arabera. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak arautu

ditu Kontseiluaren ahalmenak, 107. artikulutik 110. artikulura bitartekoetan.

II.- Estatuak eskumen osoa duela Justizia Administrazioaren arloan, Espainiako Konstituzioaren 149.1.5 artikulua arabera.

III.- Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak, bere aldetik, hauxe ezarri duela 60.1 artikuluan, Justizia Administrazioaz denaz bezainbatean: Foru Komunitateari dagokiola Botere Judizialari buruzko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari buruzko Lege Organikoek Estatuko Gobernuari onartzen edo esleitzen dizkieten ahalmen guztiak erabilteza.

IV.- Delitu biolentoak eta sexu-askatasunaren aurkakoak jasan dituztenendako laguntzak eta sorospena aurreikusten dituen 35/1995 Legeak, abenduaren 11koak, bere 16. artikuluan ezarri duela Justizia Ministerioak ekingo diola, aurrekontu aurreikuspenekin bat, delitu horiek jasan dituztenei laguntzeko bulegoak ezartzeari, non eta hala behar duten epaitegi eta auzitegien egoitza guztietan edo fiskaltza guztietan. Aipatu bulegoen jardueraz ari dela, hauxe ere ezarri du: Justizia Ministerioak hitzarmenak egin ahal izanzen dituela kudeaketa autonomia-erkidegoen eta toki korporazioen esku uzteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikulua ezarritakoarekin bat.

V.- Lankidetzarako hitzarmen honen xedea dela Konstituzioak ezagutzen duen printzipio bat betetzea, epaile eta auzitegien babes benetakoa, alegia, delitu biolentoak eta sexu-askatasunaren aurkakoak jasan dituztenendako osoko arreta bermatzeko.

Ondorioz, aldeek egokitzen jo dute lankidetzaharremanetan aritzea eta hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute. Hurrengoak izango ditu arau:

**KLAUSULAK**

**Lehena.-** Delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoa sortuko da Nafarroako Foru Komunitatean. Iruñeko Auzitegi berrietan kokatuko da, San Roke kalea, z/g. Delitu biolentoak eta sexu-askatasunaren aurkakoak jasan dituztenendako laguntzak eta sorospena aurreikusten dituen abenduaren 11ko 35/1995 Legearekin eta hori garatzen duten arauekin bat egingo da hori.

**Bigarrena.-** Lankidetzaren baitan, Nafarroako Foru Komunitateari dagozko:

a) Beharrezko giza eta gauza baliabideak ematea, aurrekontu-kontsignazioen barruan, delitua jasan dutenendako arreta, aholkua eta laguntza egokiak bermatzeko.

b) Burututako jardueren oroit-idazkia egitea. Hitzarmen honetan eratu den jarraipen batzordeari aurkeztuko zaio.

c) Zerbitzuak ongi funtzionatzeko egokitzat jotzen diren hobekuntzak sustatzea, aipatu jarraipen batzorde horren bitartez.

d) Bulegoa martxan jarriko dela berri ematea herritarrei eta gaiarekin zerikusia dutenei.

**Hirugarrena.-** Justizia Ministerioari, aldiz, hurrengoak dagozko:

a) Delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoaren egoitzarako behar den lokala eta mantentzen diren zerbitzuak ematea.

b) Delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoaren langileak epaitegietako langileengana heltzea eta haiekin lankidetzan aritzea erraztea.

**Laugarrena.-** Delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoak hurrengo eginkizunak izango ditu:

a) Laguntza psikologikoa, kriminologikoa, juridikoa eta soziala ematea delitua jasan dutenei eta haien senideei. Laguntzen aldetik edo alde juridikotik diren aukerei buruzko informazioa, aholkularitza eta orientabidea ematea, hala eskatzen badute.

b) Abenduaren 11ko 35/1995 Legeak eta hura garatzen duen Erregelamenduak, maiatzaren 23ko 738/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen hark, ematen dizkieten eskubideen berri ematea delitua jasan dutenei.

c) Biktimaren egoera pertsonalaren jarraipena egitea, prozedura judizialean zehar.

d) Gaiari buruzko azterlanak burutzea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean.

e) Aldeek hitzarmen hau garatzean erabaki ditzaketan gainerako guztiak.

Delitua jasan dutenei laguntzeko bulegoko langileen jardute-eremutik at geratuko da prozedura judizialean esku hartzea, baldin eta langile horien zerbitzuak eskatu dituztenek zerikusia badute prozedura horiekin, eta baita beste profesional batzuen jardueran sartzea ekar dezakeen edozein dokumentu idazten esku hartzea ere.

**Bosgarrena.-** Jarraipen batzordea sortu da hitzarmen hau burutu eta garatzeko. Sei kide izanen ditu eta izenpetzaile bakoitzak bina izendatuko du.

Batzorde horri dagokio hitzartutakoa betetzen dela begiratzea, funtsezko helburu nagusia erdiesteko moduan, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko justizia arinago, eraginkorrago eta eragingarriago egitea, Espainiako estatu osoan aplikatu daitezkeen plan orokorrekin bat.

Bereziki, hurrengo eginkizunak eman zaizkio jarraipen-batzordeari:

a) Burututako jardueren oroit-idazkia aztertu eta onestea.

b) Zerbitzuak ongi funtzionatzeko behar dituen hobekuntzak aztertu eta onestea.

c) Hauxe proposatzea eskumena duten organoei: delitua jasan dutenendako tratamendua hobetzeko behar diren erabaki eta neurriak har ditzatela.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkarietako bati egokituko zaio batzordeburua izatea. Batzordeburuaren aginduz egingo dira bileretarako deiak eta bertan adieraziko da non egingen diren. Batzordekideek lerrun eta jatorri bereko beste pertsona baten esku utz dezakete bertaratzea. Batzordekideek aholkularia aukera dezakete bileretara joateko. Aholkulariak hitza izango du; botorik ez, ordea.

**Seigarrena.-** Hitzarmen honen indarraldia urtebete izanen da, izenpetzen denetik hasita. Besterik gabe luzatuko da, aldeetako batek espreski salatzen ez badu, behintzat, indarraldia bukatu baino hilabete lehenago, gutxienez.

Goian esandako guztiarekin bat, izenpetzen dutenek bere dituzten ahalmenak erabilia, ordezkatzeko dituzten erakundeak lotzen dituztela, hitzarmen honen hiru ale izenpetu dituzte, esandako toki-egunetan.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aldetik

Justizia Ministerioaren aldetik

Nafarroako Foru Komunitatearen aldetik



---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakindegia eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeko plan bat egin dezan**

*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hondakindegia eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeko plan bat egin dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Ingurugiro Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaidatzeko:

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak eginiko inbentarioaren arabera, gure komunitatean zazpiehun bat hondakindegia eta zabortege daude, eta horiek larriki kaltetzen dituzte paisaiak, erreka eta ibaiak, akuiferoak, lurzoruak, jendea bizi den tokiak, fauna eta floraren habitata eta natur-balioa duten beste batzuk.

Dauden datuak ikusirik, hondakindegia eta zabortege gehienak lurzoru publikoan daude (seihunen bat); besteak, berriz, lurzoru pribatuan edo zehaztu gabekoan daude.

Nafarroako Gobernuak eta zenbait toki entitatek hainbat jarduketa egiten aritu dira hondakindegia eta zabortege horiek desagertarazteko. Hala ere, azken urte hauetan egin diren jarduketa bakan horiek erakusten dutena da helburuen planifikazio falta eta baita denboraren programazioarena eta horretara bideratzen diren baliabide publikoena ere.

Beharrezko da, beraz, jarduketa-estrategia osoa definitzea, eta horrela, epe zehatz batean, modu jarraitu eta eraginkorrean desagertaraztea hondakindegia eta zabortege horiek. Halaber, legeztatutako guneen sarea osatu beharko litzateke, gune horietan, entitate publiko eta pribatuen laguntzarekin, material eta hondakin inerteak edo beste mota batekoak kontrolpean utzi ahal izateko.

Beharrezko dirudi plan bat egitea ingurugiroari buruzko eskumenak dituzten Administrazio publikoek kutsadura gune horien desagertapena sustatu ahal dezaten, oraingo inbentarioa eta horren gaurkotzea abiapuntu hartuta. Plan horren helburua legez kanpoko hondakindegia desagertaraztea izanen litzateke eta hondakinak eta zaborrak natur-ingurunea kaltetu gabe non utzi daitezkeen aurreikustea.

Horiek horrela, Biltzar honetako Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean erabaki dadin, ondoko erabaki proposamena aurkeztu da:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak egin dezan hondakindegia eta zabortegeiak desagertarazi eta antolatzeko plana. Horrela, planarekin eta zerikusia duten toki entitate, eraikuntza enpresa eta beste produkzio-sektore batzuen elkarlanarekin, eta kaltetutako lurzoruen jabeenarekin, hain zuzen, aipatutako hondakindegia desagertarazi daitezela nahi da, eta kaltetutako

guneak lehengoratu; halaber, aurreikus daitezela puntu edo gune jakin batzuk eskonbroak eta beste material desegoki batzuk, kontrolpean eta legearen arabera, utzi ahal izateko, beranduago hiri hondakin solidoen tratamendu zentroetara eraman ditzaten.

2.- Hondakindegia eta zabortegeak desagertarazi eta antolatzeke plana ez da bost urte baino gehiago indarrean egonen, eta ondokoak izan beharko ditu: hondakindegia eta zabortegeen inbentarioa, horien kokalekua, egoera administratiboa, natur-inguruneari eragiten dizkion kalteak, horietariko bakoitza desagertarazteko aurreikuspena, hondakinak kontrolpean uzteko leku berriak edo proposatutako guneak, eginen diren jarduketak

gutxi gora-beherako kostua, jarduketak egiten dituzten erakunde, entitate edo instituzioak, eta plana eraginkorra izateko aurreikusitako finantziazioa.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehinez ere sei hilabeteke epean Biltzar honi igor diezaion aipatutako hondakindegia eta zabortegeak desagertarazi eta antolatzeke plana, plan hori eztabaidatu eta onets dadin.

Iruñean, 1998ko ekainaren 3an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

## **Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika**

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, gaitzetsi egiten da Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzatik egiten ari den hezkuntza-politika. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Parlamentari Talde Sozialistak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoarekin bat, mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Hauxe gaitzetsi nahi da mozio horren bidez: Nafarroako Gobernua Hezkuntza eta Kultura Departamentutik egiten ari den hezkuntza-politika.

Nafarroako hezkuntza-sistema garrantzizko unea ari da bizitzen eta irizkidetasunerako ahalegin handia eskatzen digu horrek guztioi, Konstituzioaren xedapanetan eta gure legedian oinarritu-

rik, hezkuntza-sistema bidezkoago eta zuzenago lortu eta kalitate-maila handia erdiesteko, barne-desoreka nabarmenik gabe.

Konstituzioak eta hura garatzen duten lege organikoek irizkidetasuneko ahalegina eskatzen digute LOGSE Nafarroan ezartzeko, bere izpiritua mantenduz. Aldi berean, LODEk proposatu dituen finantzaketa-irizpideak kontrolatu behar dira, eta euskararen aldeko gure legedia zorrotz aplikatu.

Nafarroako hezkuntzak, aipatu diren oinarritzko alderdietan behintzat, ezin du abagune politikoa- ren gorabeheren menpe egon, ez eta gehiengorik ez duen gobernu baten jarduerak izan dezakeen aldakortasunaren azpian ere, gobernu hori LORAFNAko 29. artikulua ezarritako prozedura automatikoa aplikatzetik heldu dela.

Ikuspuntu horretatik, beraz, hezkuntzaren oinarritzko aldeek estatu-politika baten xede behar dute, liskar politikoetatik at egon, eta politika horrek bermatu egin behar ditu bideak, estrategiak eta baliabideak, planteatzen den erronka nagusiari aurre egiteko: kalitatezko hezkuntza lortu eta gizarte-zuzentasunaren eta askatasunaren printzipioekin uztartu.

Hezkuntzaren alorreko erabaki politikoetara hurbiltzeko oinarritzko irizpide hori ohiko jokabidea izan da Nafarroan azken urteotan, bai Parlamentuko taldeen aldetik, bai hezkuntza-arduradunen aldetik.



Egoera, hala ere, aldatu egin da 1996ko irailetik aitzina. Eta hori ez da aurkaritzako taldeen jarreraren erruz gertatu. Izan ere, hezkuntza-sistema zorrotz aztertu nahi izan dute horiek, aurrerabide-gobernuaren agintaldian eta Parlamentuko batzorde berezi baten baitan sortutako proposamenaren ildotik, eta irizkidetasuna eraberritu, hezkuntza-sistema bultzatzeko estrategia berria lortzeko.

Ezinezkoa izan da, ordea, Nafarroako Gobernuaren jarreragatik, hezkuntza-politikako erabakiak hartu dituelako, azterketa zorrotz baten emaitzei itxaron gabe eta Parlamentuan nahikoa laguntza zuen ala ez jakin gabe.

Gobernura heldu bezain laster, UPNko ardura-dunek neurriak hartu zituzten, DBHko eskolamapa ezartzeari buruz eta DBHko bigarren zikloko dekretu zatikatzaileei buruz, Biltzarreko taldeen gehiengoa aurka zutela, noski.

Gauza bera gertatu zen LOGSE garatzeko neurriekin. Batxilergoen aplikazio bitxia edota 0-3 urteko haurren hezkuntza aurreikusitako epeetan prestatzeko batere asmorik eza adibideak besterik ez dira, Gobernu honek LOGSE zehatz-mehatz ezartzeko duen gogo-falta erakusteko.

Irakaskuntzaren finantzaketa-sistemak kontrolatzeko politikan, pausorik ere ez da aintzinatu.

Ez dute neurririk hartu itun-sistemak ezarritako betebeharrak betetzen zirela kontrolatzeko. Eta Gobernuak berak onartu du ehuneko 25eko iruzur fiskala dagoela beken sisteman.

Parlamentuko Talde Sozialista beldur da ez ote garen azken aukera galtzen ariko, gure hezkuntza-sistema ildo aurrerazaleagotik berrikusteko, bidezkoago eta zuzenago bihurtzeko, eraldaketa sakonak gertatzen ari diren une honetan.

Aurreko guztiarengatik, Parlamentari Talde Sozialistak Parlamentuari proposatzen dio adierazpen eskubidea eta Exekutiboaren jardura kritikatzeko eskubidea erabil ditzala, eta hurrengo erabaki-proposamena onets dezala, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-politika zalantzan jarri eta politika hori ildo aurrerazaleagotik aldatzeko gogoia aldarrikatzeko:

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernua, hezkuntza-politikan diharduelako inongo irizkidetasunik gabe, Nafarroako hezkuntza-sistema ildo zuzenago eta bidezkoagotik eraldatzeko interes orokorraren aurka. Nafarroako Parlamentuak, halaber, hezkuntza-politika ildo aurrerazaleagotik eraldatzeko gogoia adierazten du.

Iruñean, 1998ko ekainaren 5ean

Bozeramaileak: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har dezan**

*PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Berako Labiaga ikastolarekin zerikusia duten zenbait neurri har dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Eleduna den Pedro Romeo Lizarraga, Ganbararen Arautegiaren 192. artikularen eta ondokoen arabera, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko hurrengo mozioa aurkezten du:

Berako Labiaga ikastolako DBH etapa osoa legeztatu eta kontzertatu gabe dago. DBH-ko lau kurtsoak (bi zikloak) eskeintzen dira, guztira 100 ikasle direlarik.

Aurtengo ikasturtean 20 ikaslek amaituko dituzte ikasketak. Hurrengoan gehiagok. Ikasketei dagokienez, beren egoera normalizatu gabe egonen da oraindik.

Halako kasu bakarra da Estatu osoan. Nolanahi dela ere, egoera hau guztiz kaltegarria da

gazte hauentzat, eta orobat beren gurasoentzat eta ikastolarentzat ere.

Erabaki proposamena:

Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari zera galdegiten dio:

1. Berako Labiaga ikastolaren "DBH" bi zikloen legeztatzea, gainontzeko zikloak legeztatuak dituen baldintza beretan egon daitezen.

2. Ikastola honen "DBH" etaparen 4 gelen kontzertazioa, "DBH" duten beste ikastolen baldintza beretan egon daitezen.

3. Legeztapenaren prozesua amaitzen den bitartean, 1998-99 ikastutetik hasita, Gobernuak kontzertatuei dagokien diru kopurua emanen dio ikastolari, 4 gela hauen kostuei aurre egin ahal dezan.

4. Bestalde, azken lau urteotan "DBH" bi ziklotan eginiko lanari zegokiona ere emanen dio, sortutako zorrak ordain ahal izateko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 2an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabal dezan**

### *PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) zabal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlama-

ria, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Parlamentuko Batzorde honek Hezkuntza Kontseilaria premiatu du, foru agindu baten bitartez zabal diezaien Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako irakasleen euskarazko prestakuntzarako planaren XVIII. deialdia (apirilaren 27ko 120/1998 Foru Agindua) ikastetxe pribatuetako irakasleei.

2. Parlamentuko Batzorde honek Hezkuntza Departamentua premiatu du, aipatu xederako hurrengo deialdietan inongo bereizketarik egin ez dezan irakasleen artean eta, ondorioz, hala eskatzen duen irakasle oro joan ahal izan dadila aipatu birziklatze-ikastaroetara, lan egiten duen ikastetxea edozein dela ere.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 29an

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan**

### *MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioan egiten diren aparteko orduei buruzko ikerlan bat egin dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Aurrekontuak izapidatu zirenean, Nueva Izquierdako kideok zenbait emendakin aurkeztu

genituen Foru Administrazioaren barrenean aparteko orduak kentzeko.

Orduan, esan genuen ez zela testigantza hutsezko ekintza, baizik eta arlo guztietan behar-beharrezko ziren aparteko orduak besterik ez egitea lortzeko konpromiso tinkoa.

Horiek horrela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu da.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hiru hilabeteko epean, Biltzarraren aurrean aparteko ordu estrukturaleri buruzko ikerlana aurkez dezan, eta ikerlan horretan sakonki azter daitezela zergatiak eta aztertu ere langile berriak kontratatuz aparteko ordu horiek benetan gutxitzea.

2.- Nafarroako Gobernuak departamentuka ezarriko du enplegu eskaintza publikoa eta, ahal den neurrian, kontratu egonkor bihurtuko du, oposizio-lehiaketa bidez, aparteko orduetarako aurrekontuetan ezarritako kopurua.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du funtzio publikoko langileekin egiten den hitzarmenean itundu dezan zentral sindikalekin aparteko ordu koiuntural eta behar-beharrezkoak denbora librearekin ordainduko direla.

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruzko galdera**

*JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Arangurenek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, eta baita Osasun Kontseilariak ere, ezagutzera eman zuten hurrengo menderako tabakorik gabeko gizartearen aldeko manifestua.

Horren aurrean, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer neurri zehatz, arauak, hezkuntza-neurriak, osasuna zaintzeko neurriak, hartu behar dituzte manifestua sinatu duten kontseilariak hurrengo mendean tabakorik gabeko gizartearen lortzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

---

## **“Kooperatiba araubideko makineria eta prokdukzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Kooperatiba araubideko makineria eta prokdukzio-bideetarako dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 105.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 27080-0 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Kooperatiba araubideko makineria eta prokdukzio-bideetarako dirulaguntza.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta

horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 10.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 27230-6 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Pirinioetako behien hobekuntza genetikoa. ASPINA.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 23.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 27240-3 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Esne-kontrola eta esne-ekoizpenaren kontrola. AFNA-NCL 447 dirulaguntza.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

---

**“Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 40.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 27300-0 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Abeltzainendako dirulaguntzak behiak berriz jartzeko.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 83.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 97025-9 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: ITGen jarduerak Interreg FEOGA-O Programan.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 40.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 97071-2 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Kalitatea eta dibersifikatzea. 5b helburua programa eragilea.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 30.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 97070-4 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Laguntza teknikoa. 5b helburua programa eragilea.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 95.000.000 pezetako kontusail bat onetsi zen, 97073-9 lerroari dagokiona, eta ondoko izena duena: Mahasti eta ardo ustiapen zentroaren birgaikuntza. 5b helburua programa eragilea.

Hauxe jakin nahi da:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean, 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana



## **“Dirulaguntza, ureztalur berrientzako edo daudenak hobetzeko” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Dirulaguntza, ureztalur berrientzako edo daudenak hobetzeko” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

